

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA



**Markel Garrido, Maitane Hernandez, Galder Morales
eta Endika Urrutia**

Gure taldeak pentsatuta daukan lana hainbat herrialdetako errepide eta kotxetan imanak jartzea da, eratzen dugun energia elektromagnetikoa industriak ekidin eta kutsadura murriztu dezan. Honekin batera, ibilgailuek desplazamendu arinago bat izango lukete, mota guztietako erregaiak ezabatuz; honela, bai osasun aldetik eta bai teknologikoki aurrerapen aipagarri bat lortuko genuke.

Halaber, GJH planarekin harreman estua daukagu, hainbat atal betetzeko prest: Osasun eta ongizatea (3), Hiri eta komunitate jasangarriak (11), Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak (12), Klimaren aldeko ekintza (14), eta, gehienbat, Energia eskuragarri eta ez kutsatzailea (7).

Oro har, gure enpresaren forma juridikoa sozietate mugatu batean oinarrituta dago, kasu honetan lau langile izanda eta, hortaz, Sozietate Zergaren menpe dagoena. Horretarako, gure langileek, emakume nahiz gizon izanda, soldata berdina edukiko dute, eta emakumea enpresaburu izango da edozein kasutan.

Maitane, enpresaburua: material eta langile guztiak menderatzen dituen, proiektua behar den moduan garatu dadin; Markel, ideiaren saltzailea: gure eredu, ideal eta materialak enpresatik mundura helarazten duena, diru-kontuak maneiatuz; Endika, gure komunikatzailea: uneoro gure ideiak transmititzen dituen, gure bezeroekin kontaktuan jarritz; eta, azkenik, Galder, diseinatzailea: gure logo eta materialei forma eta diseinua ematen diena, beharrezko parametroak jarraituta.

AMIARI begira, gure Aukerak, Mehatxuak, Indarrak eta Ahuleziak ditugu oinarri. Alde batetik, esan genezake egungo energia polemiken egoera aprobetxatzeko abagunea daukagula, kontsumitzen diren erregai toxikoak ezabatuz: gauzak horrela, gure alde dauden enpresa asko sendotu genitzake. Indarrei erreparatuz, gure ekintzailtza eta adimena izan daitezke gure sendotasuna: gure bezeroek alde daude teknologia berria jartzearekin eta jasangarritasuna mamitzearekin. Gainera, gure eksklusibotasuna energia elektromagnetikoan abiapuntu da proiektua aurrera eramateko, eta monopolio nabarmen bat sortu ahal izateko. Edonola ere, Ahuleziak ere badauzkagu, honen barruan, munduko sistematika osoa aldatu beharra: gaur egun petroleoa da ibilgailu gehiengoaren abiapuntua, eta urteak eman genitzake gure proiektua martxan jartzeko: beraz, izan daiteke gizarteko hainbat hiritarretan adostasun eza egotea. Amaiera bezala, Mehatxu anitzak izan daitezke gure enpresan,

batetik, diru- sarrera urriak izatea: Energy Wheels-ek proposatzen dituen eskaintzek aurrekontuz kanpo egoteko arriskuan jartzen gaitu. Izan ere, kompetentzia boteretsuak ditugu aurre, eta horrek, arazo larriak ekarri liezazkiguke.